

# URAREN EGOEREA TA ETORKIZUNA

Gure mundu onetan biztanleak ugaritu egiten dira eta ugaritze orrek arazo aundiak eta asko ekarri daikezk etorkizunaren barruan. Gaur alegin aundiak egiten dira ugaritze ori urritzeko, ez guztiak bidezkoak, baiña alan eta guzti be lurra biztanlez geroago ta beteago egiten jaku.

Eta uraren arazora begiratu ezkerro, eta auxe da gaur aztertu nai doguna, beste eragikin edo faktore bat sartzen jaku or: Aurrerapena. Guk erri guztiak aurreratzea gura dogu eta orretarako egiten doguz alegeiñak, baiña erri aurreratuak, gaur geuk, asko ur geiago bear dabe eta erabilten dabe.

\* , \*

Garbi-laguntzak eta ura eroaten ez ba'jakez, izurriak eta askotariko gaisoak zabalduko dira. Kalkuta'n, esaterako, %70 bizi dira egoera larri orretan: ume asko eta asko ilten dira. Ura bear dan lez banatuko ba'litz, berazkoagaz urteko 200 milloi gitxiago ilgo litzakez, munduan.

Gaur be ur-saltzailleak ba-dabiltz ura saltzen, baiña uriko ura baiño amar bidar geiago kentzen dautse egarri diran gizajoai. Eta saltzailleak geroago ta aberatsago egiten dira laterri-arteko maillan multinazionalak euren artean osotuta. Emendik urrean, Bartzelona'n daukagu olako alkarte bat erdi-ugarte guztirako eta 1996n urtean 14.000 milloi pezetako irabazi garbiak lortu dauz.

## ZER ALDIZKARIA

**Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (2.500 pezeta) kontu onetan:**

**EUSKERAZALEAK**

**BILBAO BIZKAIA KUTXA**

**Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!**

**Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 2.500 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.**

**Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.**

**Eskerrik asko!**

Gaurko gure munduan bi milla milloi dira ura urri daukenak eta ura bear dan lez banatzeko 84 billoi pezeta bear-ko litzেকেz eta ori laterrientzat dirutza ikaragarria dan lez, beste urtenbide bat aurkitu dabe: Ura salgai ipiñi eta ur-saltzailleak laterri-arteko bazkunak, multinazionalak, izan dai-tezela. Orra or barriro be txiroentzat arazoa! Ura erosteko dirurik ez dabe eukiko!

Gaurkoz ura egon ba-dago, 40.000 km.3 daukaguz eta erabilten dan ura ez dira ortik %10 baiño. Urterik urtera geiago erabilten da, urteko %3 ur geiago erabilten dogu. Bide oneri jarraituz 2.025n urtean asiko litzake arazoa, urritasuna: Biztanleak orduan 8.000 milloi izango dira, gaur baiño bi milla milloi geiago, eta lurreko uretza osoa, gaurkoa bera.

\* , \*

Uri aundiak geroago ta aundiago egiten jakuz. Datorren urtean munduan 23 izango dira 10 millotik gora biztanle eukiko dabezenak, geienak mundu atzeratuan, Irugarren Munduan. Eta uri oneitan biztanlerik geienak urialboetan bizi izango dira, ezelako erri-laguntza barik.

Nondik ekarri orrenbeste biztalerentzat ura? Zelan ipiñi urbideak eta ur loi-bideak? Mexiko'k 180 km'ko urbi-dea egin dau ura ekarteko.

Beste arazo bat ura banatzeak erri-artean sortuko dauzan asareak eta gudak izango dira. Emendik urrean be zerbait sortu da ur-aldatzeak edo "trasbaseak" dirala-ta, Afrika'n 18 lekutan dagoz arazo larriak, Jordan eta Eufrates ibaien inguruan be bai, Ameriketako Paraná eta La Plata ibaien inguruan bardin, eta Ganges ibai aundia dala-ta India ta Pakistan'en artean larri dabiltz.

Gure Euskalerriari begiratu ezkerro, alde bi daukaguz oso ezbaridiñak: Urak Lur-arte itxasora botaten dauzana eta Kantauri itxasora botaten dauzana. Lenengo aldean Ebro edo Ibairu erreka ederra daukagu eta ureztatzeak be egiten dira baina Ebro ez da geure-geurea. Eta bigarren alde aurtua da eta errekek txikiak dira.

Urte batzuk dirala sortu zan arazoa Araba'ren eta Bizkaia'ren artean Zadorra'ko urak dirala-ta, baiña etorkizunari begira ez da ikusten larrialdiaren arazorik etorri leiten-kenik. Orretan zorionekoak garala eta gure aurretikoak lurralde on bat aukeratu ebela uste dogu.

OLAZAR'tar MARTIN'ek